

EUZKO-ARAUDIA

Euzko Aberri samindua,
zu zara lora bakana,
eun da berrogetamar urtean
adi euzkotarrena.

Geroz, ezin dut kendu arantza,
ama, olan, ikusita,
odolaren odol ta maminak
laidoz ta kateiz josita.

Olerki garra bear zenduan
kateiak urratzeko,
Lauaxeta, Lizardi, Orixe,
onak ziran askatzeko.

Baiña zure seme ta alabak
esnatu ziran goizian,
Aberri zoritxarra ikusten,
bizi dena il-zorian.

Aberri maite bereziena,
euskaldun zalea ziñan,
euzko gazteak odol beroa
opaldu eutsun mendian.

Geroz, seme leial ederrenak
ez dabe ezer ukatu,
adiñez, biotzez eta itzez
nai zinduczan askatu.

Euzko lurra, arkaitzez josia,
aitzak bezela dira,
gizon ta andra, zure semeak
euzko lurrari begira.

Gaur, euzkotarra, zure nai dana
emon eiozu amari,
izatez, zure bizi osoa
zor deutsazu-ta berari.

Ainbeste irain zergaitik dator
gizon onenen gaiñera,
zure miñak mintzen nindun, ama,
biotza jausiz lurrera.

Zure gogoa, egi ta itza
bear ditu ama onak,
zuk aterako dozuz aurrera
amaren bear izanak.

Amaren mifia arindu zeinke,
entzun Aberri oiva,
erri bizia zabaltzen doa
Gernikar arau zantsua.

Euzko mendi, ibar ta ibaiak
karraziz dagoz aurrean,
guztiak Gernikara begira
Estatuto izenean.

Askatasunak eskatzen deutsu
Gernikar Estatutoa,
euzkotarra, gaur, Euzkadik nai dau
zure egizko botoa.

PAULIN